



Begarako  
Udala

## BERGARAKO UDALA ETA TXURINGO KULTURELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Bergaran, 2022ko abenduaren 1ean

### BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkartzan, Maria Concepción Ugalde Iceta udaleko idazkariaren laguntzarekin.

Bestetik, 15389017Q NAN duen Igor Gauna Jimenez jauna, Txuringo Kultur Elkarteko lehendakaria, elkartearen ordezkartzan.

Azken honek zinpean Alkatearen aurrean aitortu ondoren berak eta berak ordezkatzan duen elkarte ez daudela 38/2003 Legeko 13.artikuluko 2 eta 3 idatz zatietan aurreikusitako debeku kasuetan, dirulaguntzak jasotzeko, elkarri hitzarmen hau sinatzeko ahalmena aitortu eta

### ADIERAZI DUTE

1. Txuringo Kultur Elkarte irabazteko asmorik gabeko elkarte dela.
2. Osintxuko eskola zabalik izatea ezinbestekoa dela, eta eskola zabalik egoteko bertako zerbitzuak hobetu beharra dagoela. Gauzak horrela, elkarteak zaintza zerbitzua ematea erabaki duela eta horretarako dirulaguntza eskatu diola Udalari.
3. Udalak 2022ko azaroaren 28ko Udalbatzaren bileran erabaki duela dirulaguntza ematea eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.

Hori dela eta, ondorengo klausulak dituen hitzarmena hitzartu dute

### KLAUSULAK

**LEHENENGOA:** Osintxuko Txuringo Kultur Elkarteak Osintxuko eskolan zaintza zerbitzua antolatu eta kudeatzeko konpromisoa hartzen du 2022/2023 ikasturtean eta 2023/2024 ikasturtean. Zerbitzu hori Osintxun bizi eta bertako ikastetxean eskolaratutako haurrentzako izango da.

Zaintza zerbitzua eguerdian emango da eskolako lanegun guztietan asteleheneetik ostiralera. Horretarako Txuringo Kultur Elkarteak beharrezkoak diren arduradunak kontratatuko ditu. Kontratututako pertsona honen/hauen erantzukizuna Txuringo Kultur Elkartearena izango da.





Begarako  
Udala

**BIGARRENA:** Txuringo Kultur Elkarteak ondorengoak ere betetzeko konpromisoa hartzen du:

1. 2023/2024 ikasturteik aurrera, ikasturtearen hasierako urteko urriaren 31 baino lehen, Udaleko Erregistro Orokorrean, ondorengo dokumentazioa aurkeztea:
  - Zaintza zerbitzurako dirulaguntza eskaera sinatuta eta adierazita, besteak beste, eskatzen den dirulaguntza, elkartearen datu fiskalak, sinatzailearen datu fiskalak eta ordainketarako erabiliko den kontu korrante zenbakia.
  - Ikasturteko zaintza zerbitzuaren aurrekontua.
2. Ikasturtea bukatutakoan, irailaren 30a baino lehen, zaintza zerbitzuaren memoria ekonomikoa aurkeztea; zehazki ondorengoak aurkeztuko ditu:
  - Zaintza zerbitzuak ikasturtean izandako diru sarrera eta gastuen zerrenda.
  - Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatzeko faktura original edo konpultsatuak.
  - Eskatu eta jasotako dirulaguntzen agiriak eta jaso ez bada zinpeko aitorpena.
3. Ekintzaren gaineko zabalkunde-oharretan Bergarako Udalaren laguntza jaso izana adieraztea.
4. Bergarako Udalaren aurrean ziurtatzea baldintza guztiak betetzen direla, hala nola, dirulaguntza jasotzen duen zerbitzuaren jarduera eta helburua betetzen direla.
5. Udalak egingo dituen ikuskapenak ez oztopatzea.
6. Bergarako Udala jakinaren gainean jartzea baldin eta Udalak diruz laguntzen duen jarduerarentzat beste dirulaguntzarik lortuz gero.
7. Gutxienez lau urtez gordetzea jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak.

**HIRUGARRENA:** Bergarako Udalak zerbitzu hori emateko 2022/23 ikasturterako 2.250 €-ko dirulaguntza emango dio Txuringo Kultur Elkarteari; ondorengo ikasturtean berriz, hau da 2023/2024 ikasturtean, dirulaguntza izango da gastuen %25aren parekoa eta gehienez 2.250€.

**LAUGARRENA:** Ordainketa bigarren klausulako 2. puntuan jasotako dokumentazioa aurkeztu, eta elkarte betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela egiaztatu ondoren (udalak egiaztatuko du, baldin eta elkarte udalak kontsulta hori egitearen aurka azaltzen ez bada. Aurka egonez gero arrazoiak azaldu beharko dira – Europako 16/679 Zuzentarauaren 21. artikuluari jarraituz eta agiriak elkarteak aurkeztu beharko ditu), alkatearen dekretuz ordainketa egitea erabaki ondoren ordainduko da.

**BOSGARRENA:** Udalak emango duen dirulaguntzaz gain helburu bera duen beste edozein dirulaguntza ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, dirulaguntzak (Udalarenak berak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan diruz laguntzen den jardueraren kostua baino.

**SEIGARRENA:** Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.





Begarako  
Udala

**ZAZPIGARRENA:** Dirulaguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Dirulaguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Dirulaguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Edozein arrazoiengatik, dirulaguntza (osoa edo zati bat) itzuli beharra balego, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

**ZORTZIGARRENA:** Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa eta lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza orokorra eta Bergarako Udalaren udal aurrekontuaren arauak eta gai honen inguruan indarrean dagoen gainontzeko legedia aplikatuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bi aldeek bikoiztuta sinatzen dute, guztia nik idazkariak egiaztatzen dudalarik.



Begarako Alkatea



Gorka Artola Alberdi

Txuringo Kultur Elkarteko lehendakaria



Igor Gauna Jimenez

